

noaia

Korri, Xalto ta Brinko
pailazoen diskoan hartu du
parte Ganbarakada taldeak

San Silvestre Hurbillago
lasterketan, izen ematea
irekita

6,51 igoko dira kirol
zerbitzuen tasak 2013an

Bidean datoz

Olentzero eta Mari Domingi





Otar-Goxo

Elkargak

Harategiko berezitasunak

Txahal azpizuna
Behi azpizuna
Esneko arkumea
Txerrikumea
Antxumea
Kapoia
Pularda, ehiza,
Rosbeef, entrekota (1kg)...

Urdaitegiko berezitasunak

Foie frexkoa
Ahate konfita,
Mikuít
Txatka naturala
Izozkina
Frijitu bereziak
Budinak
Iberiko aukera zabala

Fruta denda berezitasunak

Ananak
Gaztainak
Mahatsa
Orejoiak
Kiwiak
Bertako barazkiak
Fruten selekzio paregabea



Hirukide elkarteko kide diren
familientzat... %5 EROSKETA GUZTIETAN!

Gabonetako berezitasunak
eta otarrak prezio ezin hobean




Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Sarrerren salmenta







Informazio gehiago:
943.303.540
www.andoain.org



ABENDUAK 27, osteguna, 20.00



"ALBADULAKE"
Andaluzia

ABENDUAK 28, ostirala, 20.00



"MARCEL GROS"
Catalunya

ABENDUAK 29, larunbata, 20.00



"BACCALÄ CLOWNS"
Suitza

ABENDUAK 30, igandea, 20.00



"CIRC D' HIVERN"
Catalunya

Andoain **ikuszirkus**

Albisteak iruditan

Trukea eta berrerabilpena, opari

O lentzerotan zer oparitu, egunotako hainbaten buruhaustea izango da ziur. Aukerak bat baino gehiago, eskaintza itsutzeko modukoa. Halere, produktu berriak erosi beharrik ez dago. Horren adibide dugu abenduaren 15ean frontoian ospatu zen Jostailu Azoka.

Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkar-teak antolatutako ekimenaren seigarren edizioak, etxeko txikienentzako trukea eta berrerabilpena oparitzea izan zuen xede beste behin. Abenduaren 12tik 14ra Sutegiko erakusketa aretoan hainbat herritarrek utzitako jostailuak erakusgai jarri zituzten frontoian, joan den larunbatean. Azokarako produkturen bat utzi zuenak, trukean eta doan, beste bat har zezakeen opari. Antolatzaileek azokari jarritako izenburuak argitzen du zein den ekimen honen filosofia; "Nirea zuretzat, zurea niretzat... aizu, tori eta ekarri hori!". Hainbat haur eta guraso erakarri ditu aurtengo azokak ere.



Asteazken zehar jasotako jostailuak plazara atera zituzten aurreko larunbatean.

GAZTELEKUKOAK, GIROTZEN

Jostailu Azoka ospatzen ari zen gunean bertan, Gaztelekukoak zeuden. Iaz bezala, gura-

so taldearen ekimena girotzen. Oraingoan, koloretako oihal erraldoi bat baliatu zuten DBH 1. mailako taldeak eta hezitzaileek, jolaserako.

Laburrean

Udal liburutegia Gabonetan

Abenduaren 22tik 25era (biak barne) udal liburutegiko atea itxita izango dira. Abenduaren 29tik urtarrilaren 1era arte (biak barne) ere, berdin.

2013ko egutegia

Zenbaki honekin batera, NOAUAko egutegia banatzen ari gara. Zalao Arnaiz arduratu da, beste behin, egutegia koordinatzeaz. Aurten, herriko hainbat argazkilarien lanak baliatu ditu.

Irakurleei oharra

Eguberrietan ez da NOAUA! aldizkaririk kalertuko. Hurrengo zenbakia urtarrilaren 11n emanango dugu argitara. Albisteen jarraipena web orriaren bidez egin dezakezue: www.noaua.com

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatoria:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Arantxa Zulaika,
publizitatea@noaua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.com:
Imanol Ubeda, Ariz Gorriti,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Aloña Esnaola,
Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Uuskal preboak



Uuskal Herra?



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Aurrerapenen atzerapenak ekartzen ditun kalteak

Begiradak "Usurbil, 1371-1971" liburura eraman nau. Deika izango banu bezala sentitu dut. Eserlekutik altxa eta apaletik hartu dut. Atzekoz aurrera irakurri ohi dut egunkaria, eta halaxe ekin diot. Orduan konturatu naiz Olloki bertsolaria zela kantuz deika ari zitzaidana.

II

*Sei kabi goxo baserri zabal
danak kondairaz betiak
gure oituren gordelekuak
eta askoren maitiak
biotz gabeko makina aundiz
betiko itxi atiak
aurrerapenen atzerapenak
ekartzen ditun kalteak.*

IV

*Intxuin-txabal ta Aritzeta
oien urrengua Benta
bi Artikulak eta Arburu
baserri zabal galanta
arrasto gabe gelditu dira
arrunt lurpean gordeta
kutzare edo dalako oiek
astindu dute kopeta.*

VI

*Artikuletan txikia zena
oi zan gure baserria
Arratzain mendi ta Mendizorrotz
bide erdian jarria
osto askoko lizar aundien
atzian pixkat gordia
nik etxe ortan ikusia det
lenengo aldiz argia*

I

*Mila bederatzireun eta
irurogei ta amabi
makina aundiz osaturikan
ez dabilta oso nagi
esan liteke gaurko gizona
biotzez ez dabil ongi
gure errian bota dituzte
bekoaz gora sei kabi.*

III

*Autopista bat bear zala ta
emendik dira abitu
automobillak lengo bidetan
nonbait ezin errenditu
etxeak bota arbolak kendu
terrenuak erdibitu
igarotako lekuan ez da
lengo itxurik gelditu.*

V

*Guzi guzia premizko zanik
nigan ezin da kabitu
leku obean igarotzeko
kakoak ere baditu
markazalleak leku txarrikan
emen ez du berezitu
geienak zutik iraungo zuten
beriak izan balitu.*

VII

*Etxe batian egiten danak
jaio, koxkortu ta azi
bitarte ortan ikusten ditu
amaika geza ta gezi
zer nabaitzen dan ezereztuta
ikusitzian lenbizi
ni baño pizkorragua ez danak
ezin du adierazi*

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre

Ika-Mika

Karobia ez bota

Azken aldian Aginagatik pasa baldin bazarete, ikusiko zenu-ten pankarta bat KAROBIA EZ BOTA leloarekin, bai errotondan eta baita inguruko txabola batean ere. Non dago karobia? Galdetuko zinen agian edozein kertenek bota nahi ote du karobi bat?

Karobia Lertxundi baserriko lurretan dago, errotonda parean errepidetik 50 m-tara ibai aldera ikusten den txabolaren barruan. Aginatarrok betiezagutu dugu hor, ez dakigu zein garaitakoa den baina bai oso zaharra dela. Ez du zer ikusirik mendi alde-

an ikus ditzazkegun karobiekin (gehienetan egoera txarrean). Aginakoa herrian bertan dago eta egoera nahiko onean kontserbatua. Aipatu behar da gainera produkzio jarraiko labe bakarretakoa dela "Usurbilgo ondareak ezagutzen" liburuan (Josu Tellabide eta Asier Agirresarobek idatzia eta Usurbilgo Udalak, Alkartasuna Kooperatibak eta Noaua! Kultur elkar-teak argitaratua), 50. orrialdean jasotzen denez.

Kokapena eta garrantzia azaldu ondoren jakin ezazue Usurbilgo Udalak ekainaren 5ean harturiko eraba-

kiaren arabera, Lertxundiko karobia desagertzeko zorian dagoela, lur hauetan pabiloi industrial bat kokatzeko planifikazioan karobiak enbazaratu egiten duelako, ondorioz desagertaraziz.

Udalaren erabakiaren ondoren 2 alegazio izan ziren karobia ez botatzeko eskatuz, baina ez zituen kontutuan hartu, argudiatuz karobia ez dela babestutako eraikin bat eta horregaitkez in duela orain ezer egin horren alde.

Puntu honetara ailegatuta zera galdetzen dugu: bere garaian Usur-

bilgo Udalak karobia babesteko neurrik ez bazuen hartu, baina kontserbatareko bagara gure ondarea kontserbatu behar dugula, ez al du merezi karobia kontserbatzea?

Bestalde pairatzen ari garen krisia dela eta Usurbilen herri askotan bezala pabiloi mordoa dago hutsik eta hala ere nekazal lurrak artifizialduz jarraitu behar al dugu pabiloi berriak eraikiz orain dela urte batzuk bezala? Ez al da politika aldatzeko ordua?

Lertxundi *

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. Ale bakoitzean ez dira bi Ika-mika baino gehiago argitaratuko.

Ika-mika bat baino gehiago iristen bada, NOAUA!k idatzi horietako bat hurrengo ale batean argitaratzeko eskubidea izango du. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkarrearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: urtarrilak 11. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 7. Gogoan izan datozen bi asteetan ez dela NOAUA!rik argitara emango.

Korri, Xalto ta Brinko pailazoak, abenduaren 29an Kiroldegian



Ganbarakada taldearekin batera grabatu duten diskoa aurkeztuko dute.

Orain dela 13 urte, Brinkok sudur gorri bat jarri eta "pailazo talde bat egingo dugu" bota zuen. Enbido hari Xaltok ordagoa bota eta, bien artean, Korri lotu zuten pailazo taldera. Bigarren diskoa aurkeztuko dute datorren asteburuan: "Dantzan" du izena diskoak eta Zumarte Musika Eskolan grabatua izan zen uda partean. Musikari lanetan aritu dira Ganbarakada taldekoak. Abenduaren 29an Oiardon aurkeztuko dute zuzenean.

SARRERAK NON ESKURATU

Aurkezpen-emanaldia Lezon egingo dute abenduaren 28an. Usurbilen abenduaren 29an larunbata, 17.00etan Oiardo kiroldegian. Bi sarrera mota egongo dira: 5 euroren truke "sarrera eta diskoa", eta 2 euroren truke "sarrera" soilik.

Abenduaren 26tik salgai egongo dira Oiardo kiroldegian bertan eta, egunean bertan, ordu erdi lehenago. "Sarrera eta diskoa" erosten dutenek diskoa aurkezpen-emanaldi egunean jasoko dute, Oiardoko salmenta-tokian.

Elkarlanean egindako diskoa

Diskoa pailazo talde lezoarraren eta Usurbilgo Ganbarakada taldearen arteko lanaren emaitza izan da. "Dantzan" diskoko abestiak Zumarte Musika Eskolan grabatuak izan ziren aurreko udan, Joxan Anduagaren gidaritzapean.

■ **Korri, Xalto ta Brinko:** Ahotsak eta abestien hitzak.

■ **Joxan Anduaga:** Musika eta musika moldaketak; konposaketa, arregloak eta programaketa; abestietako akordeoak.

■ **Ganbarakada taldea:** "2010eko urrian elkartu ginen lehen aldiz Zumarteko ganbaran. Betidanik musika eskolaren inguruan ibilitako lagunak elkartu eta musikarekin gozatzea erabaki genuen". Hainbat musika emanaldi egin dituzte geroztik, gehienak Usurbilen. Besteak beste, Atxegaldeko festetako abestia sortu zuten.

Korri, Xalto eta Brinko pailazoen diskoan hauek izan dira Ganbarakadarekin aritu diren musikariak: Agurne Alkorta (ahotsa), Maider Errasti (ahotsa), Ixak Arruti (kitarra), Antton Aranburu (baxua), Iker Muguruza (bateria), Alazne Begiristain (saxoa), Javi Fernandez "Txafilis" (tronpeta), Aitor Bautista (tronboia), Aroa Etxeburua (baxua), Aintzane Aizpurua (teklatura).

Ika-Mika

Olentzerok burua galdu zuenekoa

Mendez mende ibili gara gurea dena aldarrikatzen: eta bere horretan jarraitzen dugu. Euskal kulturak dituen ohi-turak gordetzen, berreskuratzen eta zabaltzen dihardugu; bat baino gehiagobizkarra eman nahian badabil ere.

Errepikatu dugu behin eta berriz geurea dena nahi dugula eta ez dugula inposaketarik onartzen. Aldiz, deigarria da oso, geure buruari harri-ka nola gabiltzan ikustea.

Geurea den Olentzeroren irudia

zaputzen saiatu izan dira azken bi urteotan. Euskal mitologiaren ikurra da Olentzero baina batzuentzat, itxuraz, dibertigarriagoa da herriko errotondako irudia hankaz gora botatzea.

Behinola Olentzerori burua lehererrarazi zioten; eta urtebetera (bururik gabe Usurbildik oinez ibiliko zenaren beldurrez, beharbada) guztiz txikitu zuten. Konponketa lanak besteon eskura utzi zituzten, noski.

Ikastolako oporrak hartu berri dituzten haurrek, aurtan, Olentzero

desberdin bat aurkituko dute betiko errotondan. Azken bi urte hauetan erasoak jasan dituen irudia konponetzea ezinezkoa izan da. Tamalez, aurtan Olentzero xumeago batek egingo digu ongi-etorria usurbildarroi eta gure herrira datozen bisitariei. Geure buruari harrika ibiltzeak dakartzan ondorioak dira, zalantzarik gabe.

Olentzerok burua galdu zuen behin; usurbildarrok gure ohiturei tinko eusten jarrai dezagun, inondik inonra zentzurik galdu gabe. Ez da zile-

gi herriak herriari ikatza oparitzea. Olentzerori burua gal ez dakion eskatzen dugu; eta urtean zehar eskatu dioguna bete dezala opa dugu. Datorren urterako gure etxetara osasuna eta askatasuna ekar diezagula opari moduan. Eta era berean, geurea dena errespetuz zaintzen eta belau-naldi berriei gure kulturaren ondare erakusten jarrai dezagula.

Usurbilgo Udala



KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Garbigunea txoko interesgarria

A benduan ere sartu gara, urteko azkeneko hilean sartuak beraz. Gabon giroan murgilduak, festa ugari izaten dira eta nola ez umeentzat ilusioz beteriko egunak, Olentzero, Mari Domingi.... Opariak han eta hemen. Oraingo honetan aipamen berezia egin nahiko nuke Atalluko Garbigunearen inguruan. Dakizuenez, badira jada hilabete batzuk Kalezartik Atallura pasa zela eta hainbat aldaketa izan dira geroztik. Jende ugari ibili ohi da bertan, etxean ditugun hainbat material eta altzari bertan utziaz. Hala ere, argi daukat nahiz eta bertan fisikoki izan, askok eta askok ez dutela txoko interesgarri honen berri.

Garbiguneko sarreran parez pare dagoen gela horren barruan jendeak ekarriko hainbat material interesgarri aurki dezakegu. Herriko hainbat taldek, Trukalariak, gaztetxeko gazteek, pasa den azaroan txoko hau goitik behera txukundu zuten beste itxura bat emanaz. Orain Udalak, bertan apalak jartzeko asmoa du, antolaketa txukunago bat izateko. Bertan mugimendua sortu nahi da eta gauzak sartuatera bat izan dezan probokatu, horretarako herritar guztien partaidetza beharrezkoa da. Guztioi gonbidatu nahi nizuke bertara bisita bat egin eta behar dituzuen gauzak hartu edo ekartzen duzuen zerbait utzi dezakezuela jakinaraziz. "Behar duzuna hartu eta nahi duzuna utzi" lemapean sortu dezagun herrian mugimendu berria, Garbiguneko txoko berri honi eman diezaiozun beste aukera bat berrerabiltzeko. Dena ez delako diruz ordaindu beharrik, egin ezazu Atallura bisita! Ziur zerbait interesgarria aurki dezakezula doan!!!! Ondo pasa jaiak eta hurrengo urteak ekar diezagula energia berria denontzat! Ondo izan, laster arte.



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

69 etxe eta 31 baserri

O rain dela bi urte egin nuen Aginagako lehenbiziko errolda, eta hemen nauzue berriro argibide batzuekin. 469 biztanle dira guztira Aginagan. Horietatik 38 lagun 80 urtetik gorakoak eta horietatik 3, 90 urtetik gorakoak. Zaharrenak 93 urte ditu, Bittori Maioz dugu. Oraindik ere Memoriako ikastarora etortzen da. Oso dotore eta polita dago. Amaitzeko denontzat agurra. Eguberri eta urte berri baketsu eta zorionsua izan dezagula denok, eta datorren urtera arte! Aginagako etxebizitzaren inguruko datuak hemen:

Guztira: 69 etxe eta 31 baserri.
 Etxebizitza batekoak: 56 (150 lagun).
 Bi etxebizitzatakoak: 23 (108 lagun).
 Hiru etxebizitzatakoak: 4 (22 lagun).
 Lau etxebizitzatakoak: 8 (75 lagun).
 Bost etxebizitzatakoak: 2 (26 lagun).
 Sei etxebizitzakoak: 5 (82 lagun).
 Famili bakarrekoak: 2 (6 lagun).



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Nekea

U rteroko legea izango da, bai, baina aurtengoan... ez dakit, bada, aurtengoan ez ote den handiagoa urte bukaeran pilatutako nekea. Nire burutik hasi eta lankide, senide, lagun eta inguruko ezagunak bereziki nekatuta sumatzen ditut. Baiorrenak ere aitortzen du hori, kaleetan ere usaintzen da hori.

Urtea bukatu baino lehen direnak eta ez direnak bukatu beharra neke iturri izan ohi da. Udazkeneko argi faltak ere eragingo du, noski, eta hotzetik babesteko pizten dugun berogailuak ere motelduko gaitu, bai, nola ez. Baina giroan badago zerbait, badago zerbait astuna, luzea, iluna... gure umorea higatzen duena, gure bizindarrari galga ematen diona.

Komunikabideetatik eta inguru hurbiletik ia egunero datozkigun berriek nekea eragiten digute; nekea borrokatzeko edo garaipenak ospatzeko, nekea kontsumitzeko eta aurrezten jarraitzeko, nekea proiektu berriei ekiteko edo zaharrak iraultzeko. Nekea kronika hau idazteko ere.

Negua ate joka eta udaberri eske, dagoeneko. Ea bitartean neguko eguzki-izpiek behelaino trinko hau zulatzen duten, ea elur zuriak inguruak argitzen dituen. Badakizue, loterian jokatzeko ez duenak zerura begiratu behar. Urte zahar off eta urte berri on!



URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

San Esteban Txiki!

H au da hau abiadura eman duena 2012. urteak! Konturatzerako neguaren atarian gaude eta Gabonak gainean ditugu! Badirudi oraintxe Sanestebanetan ginela baina eskerrak, festak hain urrun ez ikusteko San Esteban Txiki Eguna bertan dugun.


Egia esan, ez dakit antolaketa nola joango den baina urtero bezala, abenduaren 26an, meza ondoren Jai Batzordeak hamaiketako goxo-goxoa prestatuko duelakoan nago. Euriarik egin ez badu, aukera polita izaten da plazan bildu eta salda beroa eta pintxoaren laguntzaz auzoko jendearekin kontu batzuk esateko. Beraz, gonbidatuak zaudete bertara!

Eta besterik gabe, tarte hau aprobetxatu nahi nuke denoi eguberri egun hauek ondo pasatzeko esanaz! Urteberri on!

Langabeziak gorantz egin zuen azaroan

Langabetuen kopuruak marka berria hautsi du Usurbilen. 362 herritar lanik gabe zeuden azaroan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kaleratu dituen azken datuen arabera. Urrian baino hiru langabetu gehiago, orduan, 359 langabetu zenbatu baitzuten aipatu erakundeak. Eta duela urtebete, 2011ko azaroan baino 61 langabetu gehiago dago Usurbilen. Garai hartan, 298 langabetu baitzeuden udalerrri honetan.

Udaz geroztik ez du etenik, langabezia tasaren gorantzko joerak. Azken krisialdi ekonomikoa hasi zela ziotenetik, Usurbilen erregistratu den kopuru altuena da joan den azarokoa. Duela lau urte, 2008ko azaroan, 217 langabetu ziren Usurbilen. Lau urteren ostean, 142 lagun gehiago dira lanik gabe dauden herriarrak.



Iaz baino 61 langabetu gehiago daude Usurbilen.

AZAROKO DATUAK "189 emakume zeuden lanik gabe Usurbilen, eta 173 gizonezko"

Sexuari dagokionez, aldatarik ez. Tarte handia ez den arren, 189 emakume ziren lanik gabe Usurbilen aza-

roan, eta 173 gizonezko.

Adin tarteari dagokionez, aurreko hilabeteetako joerari eusten zaio. Azaroan ere, 25-44 urte arteko herritarren artean dago langabezi tasa altuena.

Sektoreka, askogatik, langabetu gehien zerbitzuetan dago.

Udal-baratzetan izena emateko aukera ireki da

Eraiki berri diren Agereazpiko babes ofizialeko etxebizitzetan, sortu berri den Olarriondo kale ondoan, udal baratzak kokatuko dira etorkizunean. Herritarrek lurra lantzeko aukera izango dute gune honetan. Udalak lur eremuok esleitzeko prozedura abiatu du. Izen ematea irekia dago jada, urtarilaren 17ra arte.

Gutxienez duela sei hilabeteetik eta esleipenak iraun artean udalerrri honetan eroldatuta dauden 18 urtetik gorako usurbildarrek aurkeztu ahal izango dute eskaera Udalak deitu berri duen lehiaketan.

Esleipena bost urtetarako izango da eta zozketa bidez erabakiko da. 30 metro karratuko partzelak esleitzeko ditu Udalak. Herritarrek halako lur eremu bat edo bi eskatu ahal izango dituzte. Hau da 30 metro karratuko partzela bat edo halako bi, guztira 60 metro karratuko gunea eskura dezake, lurra lantzeko.

Eskatzaileen artean lehentasunak finkatu ditu Udalak. Lehentasun taldeok, langabetu, jubilatatu, pentsiodun, 25 urte arteko gazte edota konpostatze komunitarioetako ardura dunek osatuko dituzte.

Bestalde, parekidetasuna bermatu nahi dute esleipene-

an, "gutxienez emakidako titularren %40a emakumezkoak izango dira ahal den neurrian".

AZALPEN GEHIAGO, ABENDUAREN 26KO BILKURAN

Egitasmo honi buruzko argibide gehiago nahi dituenak, abenduaren 26an Usurbilgo Udalak Potxoenean antolatu duen bilerara joan besterik ez du.

Iluntzeko 19:00etarako finkatu duten hitzorduan, Iñaki Ugarte nekazaritza alorreko zinegotziak eta Ibon Goikoe-txea alor bereko udal teknikariak parte hartuko dute.

Gipuzkoan eta EAEn igo egin da langabezia-tasa

USURBILEN

Gizonezkoak: 173

< 25: 18.

25-44: 96.

> = 45: 59.

Emakumezkoak: 189

< 25: 13.

25-44: 94.

> = 45: 82.

SEKTOREKA USURBILEN

Nekazaritzan: 3.

Industrian: 70.

Eraikuntzan: 46.

Zerbitzuetan: 226.

BURUNTZALDEAN

Usurbilgo datuak barne, guztira ia 5.000 lagun lanik gabe daude Buruntzaldea osoan, 4.992 hain zuzen. Lasarte-Oria ezik, gainerako udalerrietan langabezia tasak gorantz egin zuen joan den azaroan:

Andoain: 1.121.

Astigarraga: 329.

Hernani: 1.367.

Lasarte-Oria: 1.413.

Urnieta: 400.

Usurbil: 362.

Guztira: 4.992.

Urriko langabezia datuak, alderatze bat egitearren, hauek izan ziren:

Andoain: 1.084.

Astigarraga: 320.

Hernani: 1.348.

Lasarte-Oria: 1.375.

Urnieta: 399.

Usurbil: 359.

Guztira: 4.885.

GIPUZKOAN

41.012 langabetu Gipuzkoan, joan den azaroan. Urrian baino %2 gehiago, 788 gipuzkoar gehiago, lanik gabe.

EAE-N

Langabetuak: 145.000.

Esperientzia berrientzat, a

Bost urteko ibilbidea osatu du Esperientzia Eskolak gure herrian

Bost urteko ibilbidea osatu du jada Esperientzia Eskolak Usurbilen. 50 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko egitasmoa, hezkuntza eskaintza soil batetik haratago doa. Lagun arteko harremanak indartzeko eta udalerriarentzat ekarpen praktikoak egiteko gunea ere bada Esperientzia Eskola. Garazi Elortza koordinatzaileak eman dizkigu xehetasun gehiago.

2008an hasi zineten?

Garazi Elortza. Duela bost urte eta erdi hasi ginen euskaltegiko gela batean. 32 bat hasi ziren. Jarraitzen duenak oso gustura segitzen du.

Eskolan parte hartzeko baldintza bakarra, 50 urte beteak izatea da?

Hori da. 50 urtetik gorakoei zuzendua dago. Ez da ikasketarik eskatzen. Ez dago ez azterketarik, ez da inor arbelera ateratzen eta ez dago etxeko lanik. Jende gehienaren kezka izaten da hori. Hitzaldi estiloko saioak izaten dira, eta gero norberak bere ekarpena egiten du.

Aurten ikusi dugu emakume taldea osatu dela, gizonezko-rik ez da animatzen?



50 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko egitasmoa da Esperientzia Eskola.

GARAZI ELORTZA
"Ez da ikasketarik eskatzen. Ez dago ez azterketarik, ez da inor arbelera ateratzen, ez dago etxeko lanik"

Lehenengo urteetan gizonetako bat egon zen, iaz beste bat. Baina ez dute jarraitzen. Baina hori orokorra da. Normalean emakumeak gerturatzen dira Esperientzia Eskoletara.

Zein dira ikasleen interes gu- neak?

Beraien arteko harremanak sendotzen dira, beraien ar-

teko harreman hartze horrek du garrantzia handienarikoa Esperientzia Eskolan. Beraien artean sortzen den kimika horrek. Ikasgaiak eurek hautatzen dituzte. Ikasleek argi diote; askotan eskolan irakasten ziguten, ez genuen arretarik jartzen edo ez ginen iritsi horretara, eta zenbat ikasten ari naiz orain, inongo presiorik gabe.

Zer modutan eboluzionatzen dute oro har, Esperientzia Eskoletako kideek?

Eboluzio handia izaten dute. Eskolako denbora tarte hori beraientzat hartzea eta

lagunekin egoteak izugarriko garrantzia du.

Eskolan hasten direnean, ikusten dute zer esperientzia aberasgarria den. Pertsona batzuen janzteko era, euren egoera erabat aldatzen da. Hori Esperientzia Eskola askotan bizi izan dugu.

Pertsona bat gaizki etorri, eta familiakoak gero galdezka aritzen zaizkigu, ia zer egin diogun euren ama edo aitari. Ez dutela ezagutzen diote, lehen ez bezala, etxean ez direla sartu ere egiten. Begira, aldaketa hori zer positiboa den. Onura handia da.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Idin mugarik ez da

Esperientzia Eskolako kideek, udalerrinari ekarpenak egiteko aukera izaten dute. Bi proiektu landu eta udaletxean aurkeztu dituzte jada. Aurrerabidean dira gainera. Hirugarren egitasmo bat ere lantzekotan dira. Garazi Elortzak gogorarazten duenez, “beraientzat hori izugarrizko motibazioa izaten da”.

Zer proiektu landu dituzue?

Normalean gizarteari eta udalerrinari begirako proiektuak izaten dira. Usurbilgo ikasleek Usurbilerako proiektuak egin dituzte noski. Adibidez, Usurbilen ez dago turismo bulegorik. Turistak etortzen direnean askotan galdetzen dute zer ikusi litekeen herrian. Esperientzia Eskolatik ibilbide bat egin zuten, edonork egiteko modukoa. Herriko eskultura bakoitza nork egirikoa den, zer esan nahi duen markatu eta informazio pixka bat erantsi zioten. Hori izan zen proiektu bat. Ikasleek Esperientzia Eskolan landutako proiektu hau udaletxean aurkeztu zen eta gaur egun udaletxea arlo horretatik, zerbait mugitzen ari da eta garrantzia eman diote gure proiektuari. Eta gu txoratzten gaude noski. Bigarren proiektua, helduentzako parkeen ingu-



Asteartetan elkartzen dira Artzabalen, arratsaldeko 16:00etatik 18:00ak arte.

GARAZI ELORTZA
*“Edozein momentutan
 hasi liteke edozein
 pertsona Esperientzia
 Eskolan ikasten”*

rukua da. Udaletxean aurkeztu da eta aurrera eramaten ari dira proiektu hori ere. Non jarriko duten ez dakigu ziur, baina bai galdarak egin dizkigutela zer motatako makinak izan beharko luketen, zer iruditzen zaigun. Gurekin kontatzen dutela eta jarraitzen dutela kontatzen, ikusten da. Aurreten ere bolo-bolo dabil zer

proiektu egin, baina oraindik ezin dugu ezer aurreratu.

Ikasturte bakoitzean proiektu bat lantzen duzue orduan?
 Iaz adibidez ez zuten proiekturik. Horren ordez, udal teknikariak ekarri genituen, une horretan udaletxean lantzen ari ziren egitasmoak azaltzera.

Aurtengo ikasturtea hasi duzue, baina kide berriak gerturatzeko aukerak irekita jarraitzen du?

Edozein momentutan hasi liteke edozein pertsona. Nola ikasgai desberdinak

lantzen diren eta ikasgai bakoitza bizpahiru egunekoa izaten den, sartzen den pertsonak ez du ezer galtzen. Jendeari esango nioke, etorri, probatu, ikusi zer den eta gero balora dezala hasi nahi duen edo ez.

Esperientzia Eskola, asteartetan Artzabalen

Eguna: asteartetan.

Tokia: Artzabalgo lehen solairua.

Ordutegia: 16:00-18:00.

Informazio gehiago: 646098753 (Garazi Elortza, Esperientzia Eskolako Koordinatzailea). Klaseetara joateko izena eman beharrik ez.

ANTXETA
 taberna-jatetxea
 eguneko menuak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak
 Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

TAXI
 24 h
USURBIL
 677 37 34 66 Joxe
 943 36 21 78 Etxabe

TXAPELDUN
 TABERNA
 razioak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak...
 Muna lurre 2, 943 11 82 53

Andoni Errazkin
Xukin
 igeltseritza orokorra
 Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Roger Minguell, Usurbilera etorri berri den katalana

“Oso jende jatorra ezagutu dut berehala”

Euskara ikasteko nahiak ekarri du Bartzelonatik Usurbil aldera. Herrialde Katalanetan hasitako ikasketa prozesua sakontzen ari da gure artean.

Sorтерrian, Herrialde Katalanetan ezagutu eta ikasten hasi zen euskarra. Hori duela urte batzuk izan zen. Usurbilen bizi duen lagun bati esker, hona bizitzera etortzeko aukera sortu zitzaion eta urritik ekainera arte behintzat gure artean dugu Roger Minguell. Gustura dago Usurbilen. Herrian integratzen joateko euskaraz moldatu ahal izatea oso lagungarri egin zaio la adierazi digu lerrootan.

Nolatan heldu zara Usurbila?

Roger Minguell. Aspaldian banuen Euskal Herrira etortzeko asmoa, euskara ikasteko batez ere. Neure lagun bat duela urtebetetik Usurbilen bizi da. Pisuan gela huts bat zuen, etortzeko esan zidan eta animatu nintzen. Hala etorri naiz Usurbila.

Hiriburu handi batetik, herri txiki batera, Herrialde Katalanetatik Euskal Herrira. Al daketa handia izan al da?

Hiri handi batean bizitzera ohitua nengoen. Bizimodu erabat desberdina da. Hemen pixkanaka jendea ezagutzen noa. Halere, moldatzen naiz herri txikietan. Neure aita, Kataluniako herri txiki batean jaio zen. Niretzako Usurbil ez da herria, hiri txikia baizik.

Herri ezezagun bat izanik, nola hasi zinen integratzen?

Hasieran neure laguna ezik, beste inor ez nuen ezagutzen Usurbilen. Euskaltegian hasi nintzen jendea ezagutzen. Oso jatorrak dira. Gero, herrian buelta bat ematera ateraz nintzen. Gau batean euskaltegiko laguna topatu eta agurtu nuen.



Urrian etorri zen gure artera eta ekaina arte izango da hemen.

ROGER MINGUELL

“Integratzeko pauso handiak eman ditut. Euskal giroan integratzeko oso lagungarria izan zait”

Berarekin eta bere lagunekin eseri nintzen. Euskaltegiko laguna bat batean herriko gazte

jendea aurkezten hasi zitzaidan. Gau hartan, jende piloa ezagutu nuen. Agian 15 lagun edo aurkeztu zizkidaten. Ez naiz oso parranda zalea, baina ostiral eta larunbat gauetan Kaxkoan ateratzen gara. Denbora gutxi egonagatik, jende asko ezagutzen dut.

Zer inpresio duzu Usurbilez eta usurbildarretaz?

Oso jende jatorra ezagutu dut berehala, eta segituan sartu naiz giroan. Euskaraz hitz egiten eta ulertzen dudala heldu naiz Usurbila. Horregatik, herrian integratzeko pauso handia emana dudala uste dut, euskal giroan integratzeko oso lagungarria izan zait. Ez dakit ondo hitz egiten, baina gutxi gorabehera moldatzen naiz euskaraz, ulertzen dut jendea.

“Euskara ondo ikasteko jarraipen ona izan behar duzu, eta erabili”

Euskaltegian zaude euskara ikasten. Baina bada denbora euskara ikasten hasi zinela zure jaioterrian?

Roger Minguell. Bartzelonan. Euskara musikaren bidez ezagutu nuen.

Gustatu zitzaidan hizkuntzaren soinu, ahotsa. Probatzeko hasi nintzen Hizkuntza Eskola Ofizialean ikasten.

Klaseetatik kanpo hitz egiteko aukerarik ez zenuen izango?

Euskara asko gustatu zitzaidan arren, aurrerapausoak ematea asko kosta zitzaidan horregatik. As-tero lau orduko klaseak izaten nituen. Euskara ondo ikasteko jarraipen ona izan behar duzu. Eta erabili. Nik muga handiak nituen. Baina duela urte batzuk, Goenkale ikusten hasi nintzen, Euskal Etxe-

an mintzalagun taldea osatu zen.

Egoera hartatik, euskal udalerrri batean bizitzera pasa zara.

Aukera gutxi nuen han. Hemen, ahal dudanean jende guztiarekin erabiltzen dut euskara. Kanean, dendetan jendearekin hitz egitea oso lagungarria da. Euskal giroan sartuta nago eta horrek euskara ikasten asko laguntzen nau.

“Etorkizuna ezin dut asmatu, baina bide egokian goazela uste dut”

Usurbildik Internet bidez jarraitu zituene bere sorterritiko azaroaren 25eko hauteskundeak. Kataluniako parlamentu berrian indartsu sartu den CUP mugimendu independentistako kide da Roger. Azken aldian bere sorterritik Euskal Herriara heldu zaizkigun mugimendu independentistaren inguruko albisteen ikuspuntua eman digu.

Zer giro sumatu duzue igaro diren hauteskundeon inguruan?

Roger Minguell. Itxaropen handia zegoen. Urte batetik bestera gauzak asko aldatu dira. Baita 20 urtez gobernuan egon den alderdian ere. Ni oso zuhurra naiz, ez dakit esaten dutena beteko duten. CIU urte asko egon da gobernuan, paktu asko egin ditu PP-rekin. Alderdi horren aldaketak ustekabeen harrapatu gaitu. Halere zuhertasunaren beste aldean, ilusioa dago. Bat batean, mugimendu independentista oso indartsua sortu da Katalunian.

Diada egunean ikusi zen zenbat jende ateratzen zen kalera. Independentismoaren indartzea, zerk eragin du?

“Aurkeztu garen lehen aldia da, baina CUPek urte dezente daramatza lanean”



CUP mugimendu independentistako militantea da Roger.

Irailaren 11ko manifestazioaren ostean egoera erabat aldatu zen. Gobernuak entzundu herriaren ahotsa. Herriarekin joan behar dute, ez dute beste aukerarik. Milioi eta erdi herritar mobilizatzea Katalunian, ez da egunero gertatzen. Miloi bat eta erdi independentzia eskatzen, hunkigarria izan zen niretzat. Ez nuen nire bizitzan sekula halakorik ikusi. Kaleko mugimenduak, herri mugimenduak indar asko hartu du. Baina oraindik guri erantzun behar digute politikariek. Herriarrok eskatzen duguna beste behar dute politikariek.

Etorkizuna ezin dut asmatu, baina bide egokian goazela uste dut. Oraindik ez dugu ezer lortu, orduan zalantza tsu nago.

Independentziazarako bidea markatua dago?

Aurreko Kataluniako Parlamentuak, hurrengo legegintzaldian herri galdeketa bat egitea erabaki zuen. Hori da gure itxaropena. Akordioa adostu duten guztiek beteko dutela beren proiektua; hurrengo lau urteetan herriari kontsulta bat egitea. Hitzes esan dute, egingo duten edo ez beste kontu bat da.

CUP izeneko mugimendu independentistako militantea zara. Hauteskundeotara lehen aldiz aurkeztu zarete, oihartzun han-

dia izan duzue hedabideetan?

Aurkeztu garen lehen aldia da, baina CUPek urte dezente daramatza lanean. Herrialde Katalanak defendatzen ditugu. Hauteskundeotan ez gara ahaztu, Katalunia ez dela Katalunia bakarrik, Valentzia, Balearrak eta Katalunia Iparraldeak baita. Independentistak gara, baina beti alderdi sozialari begiratuta. Herri mugimenduak sortzen hasi ginen hiri desberdinetan. Herriaren ahotsa sortu du udal txeeetan, zinegotziak lortu ditu. Azken udal hauteskundeetara aurkeztu ginen. Hauteskundeak baino lehen, 10-15 zinegotzi genituen. Hauteskundeetan ehunetik gora ordezkari lortu genituen, alkatetzak tartean. Hazten joan den mugimendua dugu.

“Katalunian katalana etengabe erabil daiteke”

Katalana eta euskara. Zer desberdintasun sumatu duzu, bi hizkuntz errealtateon artean?

Roger Minguell. Bi hizkuntzen egoerak oso desberdinak dira.

Katalunian katalanaren egoera hemen euskararekin baino hobea da. Kataluniara datorrenak, katalana entzuten du zerbait. Erabilera aldetik, Katalunian katalana etengabe erabil

daiteke, eta normalean, kasu gutxi batzuetan izan ezik, bertan bizi den jende guztiak hitz egiten ez badu ere, ulertzen du katalana. Euskal Herrian ez da gauza bera gertatzen.

Marrazkilaria da eta lan bila dabil

Ogibidez marrazkilaria zara.

Komikiak egin izan ditut. Ilustratzailea naiz baita. Elkarrizketaren bat egin dut, baina egoera oso zaila da. Donostiako Hizkuntz Eskolan egon naiz, katalan klaseak emateko iragarkia jartzen.

197/2006 DOKTRINARIK EZ
RAMON HERRIRA!



**RAMON
ASKATU!**

Bizi arteko zigorrik ez!

**RAMON
ASKATU!**

Bizi arteko zigorrik ez!



U12 BILBORA

GIZA ESKUBIDEAK. IRTENBIDEA. BAKEA

Gogoratu, urtero bezala abenduaren 30ean
19:00etan frontoian elkartuko garela.
Elkartasunezko taupadez bete dezagun frontoia!

Ea topatzen dituzuen izen hauek ondoko hizki-zopan!

Kaixo lagunok!! Gu, 2. mailako ikasleak gara. Ba al dakizue zein gaietan gauden murgilduta ikastolan? Erdi Aroan. Garai honi buruz asko ikasi dugu: Erdi Aroko gizartea, bizimodu...

Horretaz gain, Usurbilen sorrerari buruz ere asko ikasi dugu eta baita bertako eraikinei buruzko informazioa ezagutu ere. Eraikin hauetan oinarrituz, hizki zopa bat osatu dugu. Ea osatzen duzuen!!

IPUIN KONTALARIA

Eta gaiarekin ondo baino hobeto amaitzeko, ipuin kontalari bat izan genuen gelan: Ixabel Agirresarobe. Erdi Aroari buruzko hiru ipuin kontatu zizkigun, eta oso gustura entzun genituen.

Eskerrik asko Ixabel!!



2. mailako ikasleak,
Ixabel Agirresaroberekin batera.



UDARREGI



ARRATZAIN

M N J K N G D V E S Z B

R U D A R R E G I S E L

G R E A D O H A E G O A

A D G S F J B Z K K L B

E A I N I A Z T A R R A

D I N R U O F A K Ñ M Z

S A K H F S S Ñ T P P T

G G U K O P Ñ A D N U R

K A T X E G A G R C A A

Ñ R V A W D M A T O H A

T E C D J L I V S X E Z

E U J E Z T N O K I R C



URDAIAGA



GAZTAÑAGA



KONTZEJU



SAROE



ATXEGA



ARTZABAL

Inauterietan, erraldoiekin kalejiran

Otsailaren hasieran ospatuko da Inauteri Jaia. Batzuk hasi dira jai egunean pentsatzen eta erraldoien kalejira bat prestatu nahi dute. Herritarren laguntza beharko lukete, ordea. Beraz, erraldoiekin jai giroan murgildu nahi baduzu, eman izena NOAUA!ko egoitzara etorrita, 943 360 321 telefono zenbakira deituta edo email bidez elkartea@noaua.com helbidera idatziz, abenduaren 21a baino lehen. Apuntatzen direnekin, erraldoien kalejiran ateratzeko entseguak burutuko dira urtarrilean zehar, Inauteri jaia heldu arte. Erraldoiekin ibil-



tzen aditua den Aitor Aiestaran gazte aňorgarrak eskainiko du ikastaroa. 10 urte-tik 70 urtera bitarteko guztiek atek zabalik izango dituzte.

Seaskako egutegiak eta loteria salgai, Udarregiko idazkaritzan

Seaskako egutegi ezaguna erosi nahi duenak, Udarregi Ikastolako Idazkaritzan eskuratu ahal izango du. Otsailera arte, 4 eurotan salgai izango dute.

Gabonetako loteria ere eskura daiteke ikastolako idazkaritzan. Txartel bakoitza 5 eurotan (4 eurotan loteria eta euro bat laguntza). Loteria txartelaren zenbakia 41.477 da.

%6,51 igoko dira kirol zerbitzuen tasak 2013an

Urtero moduan, Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil-ko Udalek 2013. urterako kirol tasen prezioa adostu dute. Orain arte, Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) igoera, “prezioen eguneratze soil bat” aplikatu izan dute. Baina 2013an ohi baino gehiago, lau udalerrietan %6,51 igoko dituzte kirol tasen prezioak.

Salbuespeneko eta ezohikotzat jotzen duten neurri hau, ezinbestean hartutako erabakia dela diote lau udalek, murrizketarik aplikatu gabe “gure kirol zerbitzuak dauden moduan, bere osotasunean mantentzeko bitarteko bakarra dela”.

Hala adierazi zuten, Buruntzaldeko lau udalon ize-nean, David Rosco (Urnieta), Iñaki Ugarte (Usurbil), Tasio Arrizabalaga (Lasarte-Oria) eta

Ainara Rodriguez (Andoain) udal ordezkariak abenduaren 11n, Lasarte-Oriako udalbatza aretoan burutu zuten agerraldian.

Hartutako neurri honen zergatiak azaldu zituzten. “BEZaren igoerak Buruntzaldeko lau herrion zerbitzuetan izugarritzko igoera suposatu du. Hainbat eta hainbat kontratuetan, %8a ordaintzetik %21a ordaintzera pasatu gara”, adierazi zuen Taxio Arrizabalaga Lasarte-Oriako udal ordezkariak. Ez hori bakarrik. Lau udalerrietako kirol alo-

reko aurrekontuetan kostuek zenbat egin duten gora ere berri eman zuten; Andoainen 23.955 euro (aurrekontu osoaren %3), Lasarte-Orian 32.595 euro

(aurrekontu osoaren %4,38), Urnietan 14.611 euro (aurrekontu osoaren %6,92) eta



Urnieta, Usurbil, Lasarte-Oria eta Andoaingo udal ordezkariak, igoeraren berri ematen.

Usurbilen 27.604 euro (aurrekontu osoaren %4,33).

duen igoeraren media” hain zuzen.

KPI ETA BEZ IGOERAK

%6,51ko igoera, zer irizpideren arabera zehaztu duten ere azaldu nahi izan zuten. Bate-tik, BEZa %4,66 igo dela gogorazi zuten eta igoera horrek bultzatuta hartu dutela neurri berri hau. Eta portzentaje honi, urteroko KPIa erantsi diote, beste %1,85, “maiatzean KPIk, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan izan

“NEURRI DESATSEGINA”

Igoera hau herritarrek euren gain hartzea “oso gogorra eta desatsegina dela” jabetzen direla diote lau udalek, baina ezinbestean 2013. urterako soilik hartutako neurri bat izan dela gogorazten dute. 2014tik aurrera, “berriro ere KPIaren igoera aplikatzen jarraituko genuke, urteroko irizpide berdinak mantenduaz”.

2013rako soilik hartutako neurria izan dela gogorazten dute udal ordezkariak

Xabier Cazorla garaile Espainiako Txapelketan

Abenduaren 8an Totanan (Murtzia) jokatu zen Espainiako Kadeteen Txapelketa irabazi du Usurbil Judo Klubeko kide Xabier Cazorlak. Bere kategorian, 73 kiloz azpikoen artean, 28 judoka lehiatu ziren. Cazorlak saio

guztiak irabazi zituen, hurrenez hurren; Extremadurako Antonio Maza, Valentziako Pablo Gonzalbo, Gaztela Mantxako Julian Ramirez eta Andaluziako Roman Medinaren aurkako borrokaldiak hain zuzen.



Murtzian lortu zuen garaipena.

Usurbil FT

Abenduak 20, osteguna
19:45 Regional maila.

Abenduak 22, larunbata
17:00 Kadete F-11.

Eskubaloit taldeak

Abenduak 22, larunbata
17:00 Usurbil-Eibar (Hernanin).
19:00 2. Nazionala. Usurbil-El Pilar (Urnietako kiroldegian).

USURBIL AUTOAK
· TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA

Ford

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da San Silvestre Hurbilago lasterketa

Abenduaren 31n, 2012a agurtzeko zazpi ordu baino geratuko ez diren, abiatuko da III. San Silvestre Hurbilago Lasterketa. Arratsaldeko 17:00etan, Mikel Laboa plazatik. Aurreko urteetan bezala, Kaxkoari bi itzuli eman beharko dizkiote lasterkariak. Guztira, 4 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

Bakoitzak bere erritmoan, ekimenaren helburua ez baita ahalik eta azkarren helmugara iristea. Lehiakortasunik gabeko herri lasterketa dugu Hurbilago Usurbilgo Merkatarien eta Ostalarien Elkartek antolatzen duen ekimen hau. Herri merkataritza berpiztea, bultzatzea, indartzea du helburu nagusia.

EROSKETA-BALEAK ESKURATZEKO AUKERA

Lasterketa amaieran, Hurbilago elkarteko kide diren establezimenduetan xahutzeko erosketa-baleak zozketatuko dituzte parte hartzaileen artean.

Lasterketan ateratzeko ez, baina zozketan bale hauetako bat irabazi ahal izateko, San Silvestren alde aurretik izena ematea ezinbestekoa da. Ahalik eta lasterren gainera, egun gutxi barru, hilaren 26an itxiko baita epea. Apuntatzeko bi modu dituzue; bat, Hurbilago elkarteko saltokietara joatea. Bertan lortu ahal izango dira izen emateko orriak. Edo bi; noaia.com web orrialdean sartu eta bertan aurkituko duzun lasterketa honi buruzko loturan klikatuta eman ahal izango da izena. Modu batean



Lau kilometrokoa izango da ibilbidea.

edo bestean, doan.

IAZKO KAMISETAK ERABILTZEKO DEIA

Jai giroan ospatuko den herri lasterketaren aurreko edizioetan, Hurbilagoren kamisetak banatu izan dituzte antolatzaileek. Iazko edizioan egin zuten deialdia ekarriko dugu gogora. Alegia, Hurbilagoko kamisetak dituenak, jantziok berrerabil ditzala lasterketaren datorren hirugarren edizioan. Abenduaren 31n.

Mirotzen omeneko txapelketa, abenduaren 30ean

Azken urteotan bezala, datozen eguberriotan ere Mirotzen omeneko gabonetako eskubalo txapelketa jokatu da Oiardo Kiroldegian. Abenduaren 30ean izango da, eta infantil mailako taldeek parte hartuko dute. Usurbil Kirol Elkartetik berri eman dutenez, neska eta mutilen hainbat talde etorriko dira egun horretan, kiroldegira.

MUTILAK

1. Udarregi Usurbil
2. Tolosa C.F.
3. Aloña Mendi K.E.
4. Zarautz K.E.
5. Atlético Basauri
6. Askartza

NESKAK

1. Udarregi Usurbil
2. Ermuko Errotabarri
3. Aloña Mendi K.E.
4. Zarautz K.E.
5. Atlético Basauri
6. Askartza

Urte berriarekin batera, ikastaro eta ordutegi berriak Oiardo Kiroldegian

Oiardo Kiroldegiak ikastaro berriak abiatuko ditu urtarrilean. Hauek dira, antolatu dituzten kirol ekintza berriak:

URTARRILETIK EKAINERA

- Yoga. Astelehenetan: 9:00, 10:30, 14:45, 16:15.
- Ekialdeko dantzak: 10:45, 12:15.

URTARRILETIK MARTXORA

- Ur-lehor gimnasia: astelehen eta asteazkenetan, 15:00-15:50.
- Igeriketa helduentzako (zeharkaldiak egiteko entrenamenduak): astearte eta ostegunetan, 15:00-15:50.
- Lilaton lasterketa prestakuntza: urtariletik lasterketa ospatu arte. Astelehen eta ostegunetan, 10:00-10:50 artean.

ORDUTEGIAK 2013AN

2013an, lan egunetan, eguerditan bi orduz itxi egingo dute Oiardo. Hona hemen, urte berriko ordutegiak eta itxiera egunen berri:

- Lanegunetan: 7:00-12:30 / 14:30-22:00 (21:00 igerilekua)
- Larunbatetan: 9:00-21:30 (21:00 igerilekua).
- Igande eta jai egunetan: 9:00-13:30 (13:00 igerilekua).

UDAKO ORDUTEGIA (UZTAILA-ABUZTUA):

- Lanegunetan: 7:00-13:00 / 17:00-20:30.
- Larunbatetan: 9:00-13:00.
- Igande eta jai egunetan: 9:00-13:00.

ITXIERAK 2013AN

- Urtarrilak 1, 6.
- Uztailak 2, 3.



Besteak beste, lila toia prestatzeko aukera izango da urte berrian.

- Abuztuaren 1etik 25era.
- Abenduak 24, 25, 31.

PATRONATUA DESEGIN EGINGO DA

Aldaketarik ez bada, 2013ko urtarilaren 1erako Usurbilgo Kirol Patronatua deseginda geratuko da eta aipatu erakundeko egitura osoa udalarenean txertatuko dute. Aldaketa honekin, kirol zerbitzuak Udaletik zuzenean kudeatu ahal izatea ahalbidetu nahi dute.

Coaching tailerrean izen emateko aukera ireki da

Nork bere sormena landu, pentsatu eta egiteko modu berriak ikasi eta dibertitzeko aukera eskaini nahi dute, Usurbilen antolatu duten Coaching Tailerraren bidez. Saioa urtarilaren 19an burutuko da, 10:00-13:00 artean Potxoenean.

Izena ordea alde aurretik eman beharko da, 626 78 16 95 telefono zenbakira deituta edo a.talonvi@gmail.com helbidera idatzita. Ana Rodriguez adituak eskainiko du tailerra.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebatsalgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 eurotan, orain 216.000 eurotan!!! 662 056 899

75 metroko etxebizitza salgai Kalezarren. Pisu oso eguzkitsua, guztiz kanpoaldera ematen du, 2 logela, komuna, sukalde amerikarra, egongela eta balkoia plazara. Amueblatua eta berri-tua. Garajea aukeran. Tel 686462705

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 180.000 euro. 943370957.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sail-lean. 665720913 / 665720914

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAko erredakzio batzordeak ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 237.000 euro.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila

nabil. 661568471

Usurbilgo kaxkoan etxe bat alokatzen da, 3 gela, sukaldea, komuna, egongela, trasteroa eta igogailuarekin. 943 37 14 95 - 695 76 78 21 - 657 71 13 35

75 metroko etxebizitza alokairuan Kalezarren. Pisu oso eguzkitsua, guztiz kanpoaldera ematen du, 2 logela, komuna, sukalde amerikarra, egongela eta balkoia plazara. Amueblatua eta berritua. Tel 686462705

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri bategan. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

Ford Focus bat salgai, 2007. 140.000 km. 627 342 464.

Peugeot Satelis markako motoa salgai. 4.000 km. Urte eta erdi du. 627 342 464.

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

1999. urteko Ford Mondeo familiarra salgai, 1.500 eurotan. Egoera onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edo ta klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketa lane-tan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko,

**Zorionak!**

10 urte beteko dituzu abenduaren 27an. Amona,

izeba Mila eta Ana, eta zure lehengusuak Imanol, Eli eta Anen partez, zorionak! Ondo pasa!

**Zorionak Anne eta Jon!**

2 urte beteko dituzue abenduaren 26an. Zorionak Helene, ama eta aitaren partez.

**Zorionak Elene!**

Abenduaren 21an zure urtebetetzea izango da. Eskolan 20an

ospatuko dugu denak elkarrekin. Zorionak eta muxu bat Aginagako eskolatik.

**Zorionak Arai!**

Abenduaren 21an zure urtebetetzea izango da. Eskolan 20an

ospatuko dugu denak elkarrekin. Zorionak eta muxu bat Aginagako eskolatik.

morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Espientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko.

662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia. Badut esperientzia. 652712099.

BESTELAKOAK

Txamorra eta jertse bat galdu dira Atxegalden. Udarregiraigo eta jertseko eskailera ondoan. Aurkitu badituzu deitu 660 779 160

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko

frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Larru itxura duen txaketa beltz bat aurkitu dugu Aginagako frontoian. Norbaitek galdu badu, udaltzainetatik pasa bila.

Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Usurbilen, Heat markakoak (berri berriak) eta metaluzko fundarekin (beltz kolorekoak). Norbaitek aurkitu baditu udaltzaingoa utzi edo telefono mezua bidaltzea eskertuko

nuke (675 703 276).

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurreak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Taxia (Angel).....	607 928 770
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Eusko Tren.....	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Anbulategia.....	943 362 013
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Oa botika.....	943 376 076
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Iturralde botika.....	943 363 395
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	DYA.....	943 464 622
Haur Eskola.....	943 374 061	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Emergentziak.....	112
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Gonzalez Ehorzetxea.....	943 362 163
KZgunea.....	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Popular Español.....	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia.....	607 609 379	BBVA.....	943 377 155
Kaleazar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Telefonica.....	1004
Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak abenduaren 20tik 30era

Osteguna	20	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala	21	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata	22	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea	23	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astlehena	24	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Astearte	25	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Asteazkena	26	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte

Osteguna	27	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala	28	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata	29	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea	30	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behe.
Hernani. Tel.: 943 552 087
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 **teillatuak eta fatxadak**
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak
Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Agenda abendua

20 osteguna

■ **Harrera taldearen aurkezpena**, 19:30ean Potxoenean.

22 larunbata

■ **Pirritx, Porrotx eta Marimotots**, 16:00etan eta 18:30ean Oiardo kiroldegian. Sarrerakaldez aurretik salgai Mariaje, Bordatxo eta Oiardo kiroldegian.

23 igandea

■ **Mari Domingi eta Olentzero**, 17:00etan Aginagako ludotekan. Antolatzailea: Antxomolantxa elkarte.

Iñaki Otxoa de Olzaren “Pura vida”, urtarrilaren 11n Sutegin

Iñaki Otxoa de Olza mendizalearen erreskate saiakera eta bere bizitzako azken egunak ezagutzera ematen dituen “Pura vida” film dokumentala Sutegira ekartzea lortu du Andatza Mendizale Elkarteak. Urtarrilaren 11n, 19:30ean proiektatuko dute Sutegin.

“Annapurnaren hego-isurialdean, 7.400 metroko altueran, Iñaki Otxoa de Olza azkenetan dago. Berarekin dagoen kordadako lagunak alarma-oihua ematen du. Eta munduaren beste puntatik, himalayismoaren historian aurrekaririk ez duen erreskatea antolatzen da. Egin dituen tontorrez harago, Iñaki aparta



Andatzak antolatu du filmaren proiektzioa.

da. Halaber, apartak dira haren bizitza salbatzeko erreskate-lanak eta salbamenduan bizitza arriskuan jartzen duten pertsonak”, diote filmaren web orrian.

Harrera Elkartearen aurkezpena

Euskal preso eta erbesteratu ohiak egungo gizartera egokitu eta duintasunez bizi daitezzen, laguntza eskaintzeko sortu da Harrera Elkartea. Ostegun honetan, abenduaren 20an aurkeztuko dute, 19:30ean Potxoenean. Ikus-entzunezko bat eskainiko dute, solasaldirako tarte izango da eta, amaitzeko, merienda.

Etiopia Utopiaren erakusketa, azken txanpan

Astearteaz geroztik Sutegiko aretoan bisita daitekeen Etiopia Utopia taldearen erakusketa ostegun honetan, abenduaren 20an itxiko dute. Argazki eta koadroak ikusgai daude kultur etxean. Ordutegi honetan; 17:00-20:00 artean.

Elkartasun ekimen honen helburua, Etiopia laguntzea izango da.

Datozenak

Kontzertu gaua abenduaren 28an, Gaztetxean

Inuxente Eguna izango den arren, albiste ez da txantxetako. Kontzertu gaua antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak, abenduaren 28rako. Gaueko 23:00etan hasita, Desegin taldeak joko du. Eta eurekin batera, beste bi taldeek. “Musika gogoko baduzu bertaratu eta gozatu!”, luzatu dute gonbita antolatzaileek.

Ogia egiteko ikastaroa urtarrilean, Agerialdeko jangelan

Ogia egiteko ikastaroa antolatu du Usurbiltzenek, urtarrilaren 26rako. “Ikastarotik ogi eder batekin itzuliko zara etxera!”, adierazi dute antolatzaileek. Ikastaroko saioa, goizez izango da, 9:30-14:00 artean, Agerialdeko jangelan. Prezioa, 30 euro. Izena emateko deitu, 608 566 683 (Benat) telefono zenbakira.



Urtarrilaren 26an egingo da ikastaroa.

ARGILAN
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
 629 272 859 eta 943 36 13 80
 BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

JE JON ELORZA
 IGELTSERITZA
 OROKORRA
 Obrak eta erreformak
 661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ZUEK EGITEN DUZUE POSIBLE

Herri aldizkaria, aldizkariaren banaketa,
noaua.com, Udajolas, Inauteri Jaia, Kulturaldia,
Santo Tomas azoka, bestelako argitalpenak...

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA JASO OPARIA!

noaua
euskararen aterpe



ETA DAGOENeko BAZKIDEA
BAZARA....

PASA ZAITEZ NOAUA!REN
BULEGOTIK ZURE OPARIAREN
BILA!



BAZKIDETZA

IZENA: _____ ABIZENAK: _____
JAIOTZE DATA: _____ JAIOTERRIA: _____
N.A.N ZENBAKIA: _____
HELBIDEA: _____ HERRIA: _____ POSTA KODEA: _____
ETXEKO TELEFONOA: _____ MUGIKORRA: _____
POSTA ELEKTRONIKOA: _____ K/K ZENBAKIA: _____

Usurbilgo Noaua! kultur elkarteko bazkide izan nahi dut eta nire kontutik bazkidetza kuotaren helbideraketa (36€) baimentzen dut.

Sinadura:

Usurbilen,

Gabon hauetan, aurkitu zure estiloa Marijen



Marije

Arropa denda

IKKS

FREESOUL

I.CODE

amarillolimón

Lois

PART TWO

